

Finalerdiko txartela eskuan

Ormaetxea 'Urki', sailkatuta ▶ 5



Espainiako Fiskaltzak helegitea aurkeztuko du

LIZARTZA ▶ EBBk bilduta jarraitzen zuen udaletxeko afera aztertzen erredakzioa ixterakoan

AUB ▶ Egibarrek «irekitako bidea jarraitzea» eta «eredua zabaltzea» eskatu dio AuBk EAJri ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Herritik at joaten dira herritar asko lanera egunero

Tolosaldean 12.338 lagun dira: langileen artean, %67,3 ▶ 2

ALEGIA ▶

Karmen jaiei hasiera emango diete bihar

Txintzarriaren igoera egingo dute lehenik: 19:00etan hasita ▶ 5

TOLOSA ▶

Saharako hamalau neska-mutil herrian dira

Saharako festa izango da Plaza Berrian larunbatean ▶ 3

LEITZA ▶

Gasolindegia lekuz aldatu ahal izateko, lanak abian


Azpikoerrotan lurrak mugitzen ari dira lanez baliatuz ▶ 7



Auzolandegietan, trikuharriei landaretza kentzen

VILLABONA ▶ Villabonako «ondare megalitikoak balioan jarri eta kontserbatzeko» helburua dute auzolandegietan parte hartzen ari diren gazte guztiak. 15 eta 17 urte bitarteko hogeitun lagun ari dira egunotan Oindolar mendian aurkitutako trikuharri inguruak atontzen. Arkeologoak heltzerako txukun-txukun jarri behar

dute, izan ere, inguru hori. Euskal Herriko, Kataluniako eta Espainiako gazteek buru-belarri dihardute trikuharrietako landaretza kentzen Aranzadi zientzia elkarteke Historiaurreko Sailaren aholkuekin —argazkian—. Lanerako bai, baina aisialdirako aukera ere badute gazteek auzolandegiei esker INIGO ASENSIO ▶ 4



Belztu azala eguzkirik hartu gabe

Eguzki, solarium eta kremarik gabe belzteko aukera. **Azken berrikuntza Tolosan, 3 minutu besterik ez beltz egoteko.**

Uda honetan goza ezazu azalik beltz eta erakargarrienarekin.

Modu eraginkorra eta ziurra.

Etorri eta ikusi emailtzak.

Sorrotxategi
Nagusia, 2 - 1. • TOLOSA • 943 67 57 39

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzio klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Morant, R. Zabalarreta 1
 (Tolosa) 943 67 38 49.
 Erviti, O. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko
 hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aiztondo. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldeko. 687 41 01 18.

leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶**LANA**

Zerbitzaria. Astebukaerarako
 neska bat behar da barrarako.
 Telefona: 943 69 19 33.

EKONOMIA ▶

Hirutik bi herritik kanpora joaten da egunero lan egitera

Behin-behineko lan kontratoak, soldata baxuak eta etxebizitzaren prezio altuak dira aldaketa honen arrazoiak

JOXEMI SAIZAR

Tolosaldeko 12.338 langilek bere herritik kanpora joan behar izaten du egunero lanera, langile guztien artean %67,3 dira, hau da, hirutik bi. Eskualdeko, Tolosaldea da portzentai altuena duena Gipuzkoan. Gure lurraldean %49,9 da batz bestekoa. Beste muturrean aurkitzen da Deba Garaia, %40,35 besterik ez da herritik kanpora joaten lanera. Hori da Eustat-ek —Eusko Jaurlaritzako Estatistika Erakundea— kaleratu duen datua.

Oso gutxi dira bizi diren herrian lan egiteko aukera dutenak, edo, beste modu batera esanda, lan egiten duten herrian etxea eros dezaketanak. Bizimodu aldaketa honen arrazoi nagusizatzen behin-behineko lan kontratoak, soldata baxuak eta etxebizitzaren prezio altua —erosita edo alokairuan— aipatzen dituzte.

Tolosaldeko herriak banan-banan begiratuta, 28 herrietako zazpitan %85etik gora dira kanpora mugitu behar izaten dutenak: Altzo, Berrobi, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta eta Leaburu. Portzentai altuena Berrobik dauka —%93,9— eta Hernialde oso gertu dauka —%93,4—.

Beste muturrean aurkitzen dira eskualdeko bi herri handienak: Villabonan %37,4 bakarrik da kanpora joaten dena lanera eta Tolosan %53,5. Datu hauek logikoak dira, industria eta zerbitzu gehienak bertan baitaude.

Harrigarriagoak dira beste herri batzuen kasuak, lanpostu gutxi izan arren bertan, kanpora joan behar duten langileen kopuru baxuenetakoak dituzte eskualdean: Baliarrain —%52—, Orendain —%56,8—, Bidegoian —%60— eta Larraul —%62,7.



Gutxi dira garraio publikoa erabiltzen dutenak lanera joateko. J. SAIZAR

KASU NABARMENENAK

Zazpi herritan %85 baino gehiago dira: Altzo, Berrobi, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta eta Leaburu

Erabiliena, autoa

Kanpora mugitu behar diren artean erdiek baino gehiagok egunero joan-etorriko bidai bat baino gehiago egiten du. Aipatutako langile horien artean gehienak autoz (%77) mugitzen dira. Gutxi dira garraio publikoa —trena, autobusa— erabiltzen dutenak lanera joateko. Bizikletaz edo motoz bidaiatzen dutenak oso gutxi dira, baina herri berean lan egiten dutenen artean, eta oinez ere oso gutxi mugitzen dira.

Alor honetan, Eustat-ek beste datu bat zabaldu du: Gipuzkoako etxebizitzaren %73,3ean autoa badute. Bostetik batek auto bat baino gehiago du gainera, eta %52,3ak ibilgailu bakarra du, autoa normalean.

Gipuzkoan 145.647 langile dira bere herritik kanpora joaten direnak lanera, %82 Gipuzkoako beste herri batera, %14

GUTXIENAK

Bi herri handienetan ematen dira mugimendu txikiak: Villabonan %37,4 bakarrik eta Tolosan %53,5

herri batean baino gehiago egiten du lan —garraiolaria, banatzaileak eta komertzialak— eta %3,3 Gipuzkoatik kanpora joaten da lanera egunero.

Urrutiago bizitzeko aukera

«Gero eta jende gutxiagok aukeratzeko bidezko lan egiteko lekuaren arabera. Errepideak eta garraio modu publikoak asko hobetu dira eta horrek urrutiago bizitzeko aukera ematen digu», adierazi du Jesus Rodriguez Eustat-eko errola eta etxebizitzaren ardura-dunak. Honekin batera etxebizitzaren aldaketak aipatzen ditu Rodriguezek, bizimodu maila hobetu eta etxe hobeak erosteko («normalean familiabakarrekoak eta kostaldetik gertu»). Horrekin batera lan merkatuaren prekaritateak ere bat omen du eragina.

LANERA MUGITU ▶

Herria	Guztira	%
Abaltzisketa	83	67,4
Aduna	121	78,0
Albiztur	90	72,0
Alegia	501	75,6
Alkiza	97	80,1
Altzo	108	85,7
Amezketza	269	59,9
Anoeta	602	78,2
Asteasu	464	73,7
Baliarrain	25	52,0
Belauntza	108	81,8
Berastegi	282	71,3
Berrobi	202	93,9
Bidegoian	108	60,0
Elduain	71	87,6
Gatzelu	38	64,4
Hernialde	114	93,4
Ibarra	1.600	87,1
Ikaztegieta	157	87,2
Irura	351	81,0
Larraul	37	62,7
Leaburu	151	90,4
Lizartza	210	78,9
Orendain	29	56,8
Orexa	44	84,6
Tolosa	3.882	53,5
Villabona	1.836	37,4
Zizurkil	758	69,0
Guztira	12.338	67,3

Ikasle ugari kanpora ikastera

Langileen kasuan bezala, Tolosaldeko ikasle askok atera behar izaten du bere herritik kanpora ikastera joateko, autoz edo garraio publikoz. Eustat-ek emandako datuen arabera Tolosaldea da herritik kanpora ikastera ikasle gehien «bidaltzen» dituen eskualdea, Deba Behea eta Deba Garaiarekin batera.

Gipuzkoan, 15 urtetik gorako ikasleekin artean, %56 dira egunero mugitu behar izaten dutenak, 30.000 inguru. Bizkaian %60 dira eta Araban %23,5.

Mugimendu gehienak lurralde barruan izaten dira eta zerbitzu gutxiago beste lurralde batera. %7,6k EAetik kanpoko beste probintzia batean ikasten du. Gehienak Nafarroan, Madrilan, Bartzelonan eta Zaragozan, Azkenik, %1,7k atzerriko herrialderen batean ikasten du: Erresuma Batua, Frantzia, Irlanda eta AEB, adibidez. ◀

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Saharako herria hobeto ezagutzeko

Saharako hamalau neska-mutil Tolosaldera iritsi berri dira; larunbatean Saharako Festa izango da Plaza Berrian



lazio festa; sahararrak eta eskualdekoak, haima barruan. O. ESKITXABEL

LEIRE MONTES

Saharako ume eta gaztetxoak eskualdean dira dagoeneko. Azken urteotan bezala, aurten ere Saharako errefuxiatu kanpamentuetatik Tolosaldera bidaiatu egin dute hainbat neska-mutilek, eta bertako familiek ingaroko dute uda.

Uztailaren 2an eta 3an iritsi ziren, eta iraila hasiera arte izango dira hemen. Aurten, hamalau neska-mutil etorri dira, eta eskualdeko zenbait herritan igaroko dituzte bi hilabete hauek. «Gehienak Tolosan egongo dira; baina, besteak beste, Leaburuko, Ibarako, Anoetako eta Alegiako hainbat familiak ere hartu dituzte beren etxetan», azaldu diote Hitzari Tolosaldea Sahararekin elkartekoak.

Haur batek izan ezik, beste guztiak ezagutzen dute jada

Tolosaldea, beste urtetan etorri baitira. Familiek ere badute eskaermenturik. «Batek izan ezik, beste guztiak aurretik hartu izan dituzte umeak. Harreman estua sortzen da familien eta haurren artean».

Egun hauetan medikueta eraman dituzte Saharako neska-mutillak hainbat azterketa egiteko. Eta irteera batzuk ere egin dituzte: zinemara, Txiki-Park-era, Kutxaespaziora...

Larunbaterako, bestalde, Saharako Festa antolatu du Tolosaldea Sahararekin elkartekak, Tolosako Udalaren laguntzarekin.

Plaza Berria izango da festagune eta, era berean, Saharako herria, historia, eta egoera hobeto ezagutzeko parada eskainiko dute bertan. «Haima bat jarriko dugu, eta era guztietako ekitaldiak antolatu ditugu. Parte hartzera gonbidatzen zaituz-

EGITARAUA* ▶

11:00. Te dastatzea, eta Tolosako Dultzaineroen eta Biribilketa taldearen buruhandi eta erraldioen emanaldia. Festak irauten duten bitartean *haima* —Saharako kanpadenda— jarrita egongo da Plaza Berrian.

14:00. Herri bazkaria.

17:00. Jolasak, haur eta gaztetxoentzat.

19:00. Kontzertua: Saharako musika.

* *Saharako Festaren ekitaldi guztiak Plaza Berrian izango dira.*

tegu, Saharak gure laguntza behar du eta», egin dute deia Tolosaldea Sahararekin elkartekoak.

Bazkarirako txartelak salgai

Herri bazkaria ere egingo dute, eta dagoeneko bazkarirako txartelak salgai daude. Iratxo, Laier, Ikatzka eta Shanti tabernetan eros daitezke, ostirala arte.

Berrikuntzarik ere izango da aurtengo Saharako Festan: arratsalderako prestatu duten kontzertua, hain zuzen ere. Antolatzaileen esanetan, «Sahararik etorritako musikariak izango dira gurean, eta hango doinuak joko dituzte zuzen-zuzenean. Saharako ohiturak eta egoera ezazik, musika eta kultura hobeto ezagutzeko aukera izango da, horrela». Larunbatean da hitzordua.

VILLABONA ▶

Erraustegiaren aurka plataforma sortzeko deia

Gipuzkoako Foru Aldundiak hilaren 19an erabakiko du Erraustegiaren kokalekua. Beste bederatziren artean, Villabonako Amasamendi da proposamenetako bat, eta hori dela-eta Erraustegiaren aurkako plataforma sortu nahi dute billabonatarrek. Bilerara deitu dute gaurko, Euskaltegian. Hasiera batean 19:30ean zen izatekoa bilera; baina ordua aldatu egin dute, eta, leku berean, 20:00etan elkartzeko dira guztiak.

TOLOSALDEA ▶

Kultur dinamizatzailea Galtzaundin

Galtzaundi Euskara Taldeak kultur dinamizatzaile lanpostua betetzeko deialdia egin berri du. Lanaldi erdiko behin-behineko lan kontratua izango luke dinamizatzaileak. Honako hauek dira lanpostua lortu ahal izateko bete behar diren baldintzak: Tolosaldekoa izatea, kultur arloko eskaermentua izatea, EGA titulua edo honen baliokide baten jabe izatea, eta gidatzeko baimena izatea. Kurrikuluma Galtzaundi Euskara Taldeko bulegora eraman behar da: Galtzaundi Euskara Taldea. Nafarroa etorbidea, 6- behea. 20400-Tolosa. Telefonoa: 943 65 50 04. Posta elektronikoz ere bidali daiteke, helbide honetara: galtzaundi@galtzaundi.com. Hilaren 30a izango da kurrikulumak bidaltzeko azken eguna.

TOLOSA ▶

Harizpe elkartearn urteurren festa

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkartean XVII. urteurren ospakizunak egingo dituzte etzi. 16:00etatik 18:00etara, bingo berezia izango dute elkartean; parte-hartzaileen artean Laredora (Kantabria, Espainia) bi bidaiatu zozketatuko dituzte, abuztuaren 27an joateko. 18:15ean, berriz, txokolata eta bizkotxo banatuko dizkiete festan parte hartzen duten guztiak.

VILLABONA ▶

Emakume bat hil da eta beste bat zauritu istripuan


MI.A.V. 35 urteko emakumezko andoaindarra hil zen atzo goizean Villabonan izandako auto istripuan, eta M.V.P.V. 26 urteko emakumezko extremadurarra larri zauritu. Goizeko seiak eta erdiak aldera gertatu zen istripua, A-15 autobideko 153, 5 kilometroan, Villabona parean, Iruneko norabidean, Oindolar tunelaren inguruan, emakumeak zihozatzen Citroen Xsara autoa errepideetik atera zenean. Larri zauritutako emakumea Donostiako ospitalean da.

TOLOSA ▶

Beste bi partida Tolosaren Paleta Txapelketan

Tolosa CFren XXXVI. Paleta Txapelketako lehen faseak aurrera darrai. Gaur, beste bi partida jokatu dituzte: Pablo-Migeltxok Garmendia Urretabizkairen kontra jokatu dute, 19:00etan, Berazuko frontoian. Ondoren, Yugueros-Aldazabal eta Orbegozo-Gofi izango dira aurrez aurre. Ostiralean amaituko dute lehen fasea, eta astelehenean ekingo diote bigarrenari.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behean
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Tolosa. Erremetari kalean, guztiz berritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.
Tolosa. Agintari kalean, bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.
Tolosa. Alde Zaharra. Hormigoizko eraikuntza berrian, igogailuarekin, 3 logelako pisua salgai.
Tolosa. Zabalarreta parkera ematen duen 120 m²-ko pisu ederra salgai...
Tolosa. Larramendi, Pisu ederra

garajearekin salgai.
Tolosa. Araba etorbidea. Pisu ederra, garajea eta trastelekuarekin. Berokuntzarekin. Bista ederrak eta eguzkitua.
Tolosa. Gernikako Arbolako lorategian, 108 m². Pisu ederra salgai. Aukera handiak.
Tolosa. lurramendi auzoan, Sam-eko etxe atxikia salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak!
Ibarra. Julian Gaiarre kalean. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta

komuna. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.
Ibarra. Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai 185.713 eurotatik aurrera.
Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.
Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.
Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.
Andoain-Urnieta. Hainbat

etxebizitza berri eta 2. eskukoak.
Baserriak. Baserriak aukeran ondo herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...
Pabilioiak. Aukera handia; salmantan eta alokauran.
Borda. Salgai Urnietan.
Alkizan. Eraikuntza berriko azkeneko etxe bifamiliarra salgai.
Peñiscolan. Apartamentu ederra salgai, terraza ederrarekin. Informazio gehiago Ernio inmoiliarian, 943 65 50 37 telefonoan.

ALEGIA ▶ JAIK

Dena prest Karmen jaiei hasiera emateko

Bihar 19:00etan igoko dute txintxarria udaletxera; jaitsierak jaien amaiera iragarriko du igandean, uztailaren 18an

OLAIA ESKITXABEL

Bihar, 19:00etan txupinazoarekin eta txintxarriaren igoerarekin iragarriko dute jaien hasiera alegiarrek; Bulebarrean ere ordu berean etxafaeroak eta sagardo dastaketa antolatatu di-

tuzte Karmen jaiei hasiera emateko.

Aurten ere bi egitarau antolatuko dituzte; bost egunetan ekitaldi eta ikuskizun desberdinak izango dituzte aukeran Alegiara gerturatzen direnek. Egitarau ofizialean aipatze-

koak dira herriko bi pertsonaien lana eskertzeko eta gogoratzeko antolatuko dituzten ekitaldiak.

Ostiraleran, Karmen egunekoan, Joan Mari Beltranek eta bere taldeak kontzertua eskainiko dute herriko plazan Juan

Joxe Orbegozo panderojole alegiarriari omenalditxo egiteko asmoz.

Aurten zendu den German Intxausti txistularia gogoratu nahian, hari zuzendutako txistu kontzertua ere izango da, igandean, uztailaren 18an.

Jai alternatiboaren egitarauan, musikak protagonismo berezia duela esan daiteke.

Askotariko erritmoak eta doinuak izango dira entzungai Bulebarrean nahiz Gaztetxean; Epelde eta Larrañaga, Sei urte, La baka Guano, Lor, bertsolariak, DJ-ak...

Goizean hasita gauera bitarte aspertzeko aukerarik behintzat ez dute herrikoek aurten gozajetan.

SEGA ▶

Ormaetxea, Euskadiko Txapelketako finalerdietan

Orendaindarrarekin batera, Goioaga saikatu zen Zizurkilan izandako saioan



Jesus Mari Ormaetxea. HITZA

O.ESKITXABEL

Jesus Mari Ormaetxeak, *Urki*-k, irabazi zuen herenegun Zizurkilan izandako final-laurdenetako azken saioa; hasieratik hartu zuen aurre orendaindarrak; hasieratik ikus zitekeen bezala, berak lortu zuen lehenengo postua. Bigarren postua, Ignacio Goioagak eskuratu zuen; biak, hurrengo igandean, uztailaren 18an, Lantzen (Nafarroa) izango den Euskadiko Segatxapelketako finalerdietarako saikatu ziren, beraz. Saioa, 12:00etan hasiko da.

Ezagutzen dira, beraz, finalerdietan ariko diren zortzi segalarriak; horietako bi eskualdekoak dira, gainera: Jesus Mari Ormaetxea orendaindarra eta Mikel Aranalde gaztelarra.

JAIETAKO EGITAUAK ▶

EGITARAU OFIZIALA

Bihar.

18:30. Ordiziako erraldoi eta buruhandekin kalejira. Herriko txistulari, trikitilari eta dultzaineroekin kalejira.

19:00. Txupinazoa eta txintxarriaren igoera. Ondoren, presoen aldeko kontzentrazioa herriko plazan.

23:00. Etxabe anaiak trikitilariarekin dantzaldia.

Etzi.

09:00. Jubilatuek antolatutako mendi ibilaldia.

10:00. Diana, herriko txistulari eta trikitilariarekin alaiturik.

11:00. Haurrentzako jolas parkea Larraitz auzoan; 17:00ak arte.

11:00. Hamaiketako jubilatuentzat.

16:00. Toka txapelketa herrikoa.

17:00. Apar jaia Kale Behoko parkean, segidan ume jolasak, eta txokolate jatea plazan.

19:45. Txintxarri txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua.

00:30. Ezein taldearekin dantzaldia.

Uztailak 16.

09:00. Alegiako XLVII. Txirritu Proba-XXVI. Xakaren oroimenezkoa.

10:00. Diana herriko txistulari eta trikitilariarekin alaiturik.

11:00. Meza nagusia, Txintxarri abesbatzak abestua.

12:00. Joan Mari Beltran eta bere taldearen kontzertua herriko plazan; emanaldi tartean Juan Joxe Orbegozo alegiarriari omenaldia egingo zaio eta birrindu lasterketako opariak banatuko dira.

17:00. Berrobiko, Anoetako, Ikaztegiarekin eta Alegiako dantzarien emanaldia Larraitz auzoko plazan.

18:00. Herri kirolak herriko plazan: Perurena aita-semea harri-jasotzaileak eta Ernesto Ezpeleta, *Burrri*, aizkolaria herriko plazan. Hiru metro zirkuferentzia duen egurra moztuko du.

21:00. Zahagi ardoa Aralar bideko zubian.

22:00. Gaizk eta Kaotiko taldeen emanaldia.

01:00. Disko top disko festa.

Uztailak 17.

09:00. Sokamuturra.

10:00. Diana herriko txistulari eta trikitilariarekin alaituta.

10:00-11:00. Languarren, plater tiraketarako entrenamendua.

11:00. Haurrentzako arrantza lehiaketa.

12:00. Sagardo dastaketa

sardina eta txorizo erreekin; Lazkaoko Antzar Gazteak txarangak alaituta.

15:30. Languarren plater tiraketa; 18:00ak arte.

19:00. Uma jolasak plazan.

23:00. Pabi Saiz kantariaren emanaldia herriko zineman.

24:00. Disko top disko festa.

Uztailak 18.

09:00. Sokamuturra.

10:00. Diana herriko txistulari eta trikitilariarekin alaituta.

11:15. Meza nagusia.

10:30. German Intxausti txistulariari omenaldia; txistu kontzertua herriko plazan.

10:00. Pilota partidak.

19:30. Euskal dantzak udaberri taldearekin.

23:00. Etxabe anaiak trikitilariarekin dantzaldia.

24:00. Txintxarriaren erreketak.

JAI ALTERNATIBOAK

Bihar, Txapelaren Eguna.

19:00. Festa hasiera suziriarekin. Jarraian, sagardo dastaketa txorizokin.

21:00. Zahagi ardoa.

23:00. Kontzertua Bulebarrean: Epelde eta Larrañaga. Atsedenean, zinta karrera.

Ondoren. Herriko diska jartzaileak.

Uztailak 15.

21:00. Zahagi ardoa.

23:00. Kontzertua Bulebarrean: Neubat eta Maitips (Katalunia). Gero, DJ Pirata.

Uztailak 16.

17:00. Ume jolasak.

19:00. Goitibera jaitsiera.

21:00. Zahagi ardoa bateratuta zubian (Julen Zulaika bertsolariarekin).

23:00. Kontzertua Bulebarrean: Sei urte, Keike, Bihotzerrea.

Ondoren. Herriko diska jartzaileak.

02:00. Bakailu gaua Gaztetxean.

Uztailak 17.

14:30. Bazkari herrikoa. Ondoren, Karro Klandestinoaren kalejira.

21:00. Zahagi ardoa.

22:30. Kontzertua Bulebarrean: La Baca Guano eta Lor.

02:00. Kontzertua Gaztetxean: Afrika eta Bad Sound System.

Uztailak 18.

19:00. Interruptus taldearekin kale antzerkia.

21:00. Zahagi ardoa.

23:00. Herriko bertsolariak.

Jarraian. Kontzertua Bulebarrean: Zorabiok eta Trikitixa eta Alboka taldeak.

berria

publizitatea:
publi@iragarri.net
☎ 943 30 40 30

Euskaldunok behar dugun
berria

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 beheha • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

EAJ-k ez badu atzera botatzen Udaleko erabakia helegitea jarriko du Espainiako Fiskaltzak

Erredakzio hau ixterakoan EBB-ko kideek bilduta jarraitzen zuten oraindik; AuB-k Lizartzako udaletxearen eredia Bizkaira zabaltzeko eskatu zuen

ERREDAKZIOA

Hautsak harrotu ditu Lizartzako alkate eta EAJko GBB-ko lehendakari Joseba Egibarrek Lizartzako Udaleko EAJ-ko hiru zinegotziren karguei uko egin, eta herritarren esku jartzeko erabakiak. Egibar Artean (Bizkaia) bildu zen EAJko EBB-ren (Euskadi Buru Batzar) le-

hendakari Josu Jon Imazekin, Lizartzako erabakiaren inguruan hitz egiteko. Erredakzio hau ixterakoan amaitzeko zegoen. Ostegunean, Egibarren erabakiaren aurka azaldu zen Imaz, eta «neurriak» hartuko dituela gaineratu zuen. Atzo hedabide ugari bildu ziren Artea; Egibarrek eta Imazek bostekoa eman zioten elkarri,

baina bosteko urduria. Imazek bilera aurretik «EAJ-n gertatzen den miseria bakoitzeko hamar lorpen» izaten direla aipatu zuen.

Ofizialki, Espainiako Buletin Ofizialean (BOE) argitaratu zen atzo hiru zinegotzi berrien kargu-hartzea. Horietao bi Axurdario plataforma ilegalizatutako zerrendan zihoazen: Aitor

Olaetxea eta Xabier Iparragiri. Maribi Beldarrain da beste. Atzotik hasita, aurkeztutako kandidaturek 48 orduko epea dute erabakiaren aurka helegiteak jartzeko.

Espainiako Gobernuak EAE-n duen ordezkari Paulino Luesmak adierazi zuenez, jeltzaleek «erabaki hori atzera botatzen ez badute alderdien

legea aintzat hartu gabe Espainiako Fiskaltza izango da helegitea jarriko duena». Edonola ere, Egibarren «saiakera iruzur bat da, onartezina».

AuB: «Eredua zabaldu»

Autodeterminazioaren Bilgune (AuB) bozeramaile Joserra Etxebarriak Lizartzako udaletxearen eredia Bizkaira zabaltzea eskatu zuen atzo Bilbon egindako prentsaurrekorian. Era berean, Etxebarriak ezker abertzalearen aurkako *apartheid*-a jarraitzen duela agertu zuen, baita AuB-renak ziren zinegotzien «dapurketak» ere. Etxebarriak EAJri esan dio hurrengo urterako *apartheid*-arekin amaitzeko beharrezko pausoak eman ditzala eta Lizartzan Egibarrek «ireki duen bideari jarraitzea» eskatu dio. «Praktikan, arazoa Lizartzan bezala» gainditu daiteke.

ERREMONTEA ▶

Imanol Altuna eta Patxi Zeberio aurrez aurre gaur San Fermín torneoko finalean

Altunak Lizasorekin jokatu du eta Zeberioek Lekunberrirekin

D. GIBELALDE

Anjel Lekunberrirekin batera, gaur jokatu du Patxi Zeberio elduaindarrak (Zeberio II.a) San Fermín Torneoko finala Iruñeko Euskal Jai frontoian. Txapelaren bila, Amezketako Iñigo Altuna eta Iñaki Lizasoren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Zeberioek eta Lekunberrik aise irabazi zieten herenegun


Altuna II.ari eta Eizagirreri (29-40), torneoko finalerdietako partidari. Elduaindarrak partida ona egin zuen; pilotakada indartsuak eman ez ezik, tanto gehienak maisutasunez amaitu zituen. Gainera, Lekunberririk bikain aritu zen atzeko koadroetan. Eizagirrek ere lan txukuna egin zuen, baina Altuna II.ak ez zion askorik lagundu. Ez zuen tantoa amaitzerakoan asmatu —bakarra egin zuen—

eta ez zen maila onean aritu. Partidako lehen zatia nahiko parekatua izan zen (23-20) baina handik aurrera Zeberio eta Lekunberririk izan ziren nagusi.

Ez dituzte nolana hiko aurkariak izango gaurko finalean. Imanol Altunak eta Iñaki Lizasok 40-31 irabazi zieten finalerdietakoan Koteto Ezkurra eta Urrutiari. Amezketako arrerlaria ez zen kilidun Doneztebekoaren aurrean. Ezkurra



Patxi Zeberio elduaindarrak. HITZA



Imanol Altuna amezketarra. HITZA

baino gehiago izan aurreko koadroetan eta ederki aritu zen. Bigarren txanpan erabaki zuten norgehiagoka Altunak eta

Lizasok. 31na berdinduta joan ziren, baina ondoren bederatzitanto jarraian egin zituzten. Itxuraz, finala polita izango da.



Iñaki Uria ASKATU!

DEIALDI NAZIONALA

Uztailaren 20an, 20:00etan,
kontzentrazioa Zarauzko Udaletxearen aurrean
(Lege Zaharren plaza)

BIDEGABEKERIAREKIN AMAITU BEHAR DUGU

Iñaki Uria Askatu Taldea

LEITZA ▶

Igeriketako ikastaroak burutuko dira 19tik aurrera

Parte hartu nahi duenak kiroldegian eman behar du izena eguna baino lehen



Igerilekuak ireki zirenean. J. A.

J. ASTIBIA

Leitzako igerilekuan, igeriketa ikastaroak burutuko dira hurrengo astelehenetik aurrera, hots, uztailearen 19an hasita. Beñat Saralegi izanen da irakasle.

Ikastaroek abuztuaren 6a bitarteko luzaera izanen dute, eta handik bertatik jakinarazi dutenez, eskolak egunero eman dituzte, asteburuetan izan ezik. Bi ikastaro modu izanen omen dira. Bat, hasiera-hasierako urratsetatik igeri ikasi nahi dutenei bideratua, 11:30etik 12:15erako ordutegiarekin. Eta bestea, berriz, oinarrizkoa jakin eta, igeri egiteko modua hobetu nahi dutenentzat. Hau 12:20etik 13:05era burutuko omen da.

Ikastaroan parte hartzeko, aurrena edozein banketxetan 18,03 euro ordaindu behar dira kiroldegia konstante eta ordainagiria eskuan, kiroldegian eman behar omen da izena.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Gasolindegia lekuz aldatzeko aurreneko pausoak hasiak dira

Azpikoerrotan inguruan zenbait lur mugimendutan ari dira, zonalde hartan egiten ari diren lanetaz baliatuz



Herrigunean dagoen gasolindegia lekuz aldatuko da Azpikoerrotako Hariztira. JAIONE ASTIBIA



Azpikoerrotako Hariztiran zolaren goiko lur-geruza kentzen eta zulaketak egiten ari dira. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Gasolindegia lekuz aldatzeko bidean, lehendabiziko obra-lanekin hasita dago enpresa Azpikoerrotan aldean, lur mugimenduetan batzuk egiten ari baitira azken egun hauetan.

Azpikoerrotako Harizti modura ezagun den parajea, jada lurra kendu eta lekutzen ari dira, HITZAK jakin izan duenaren arabera, inguru horretan dagoen biribilunea, Olaberrikoa, eraikitzen aritu diren makinak bertan zeudenaz baliatuz.

Zehazki, eremuko azaleko lurra eramaten ari dira eta zulketa lanak ere egiten dihardute, gasolindegia bertan kokatzeko, beharrezko dituzten errepide bazterreko hainbat hoditeria sistemaren instalakuntza egiteko, besteak beste.

Beraz, bistan denez, hasi dira gasolindegia egun dagoen lekutik, herrigunetik, lekuz aldatzeko obrak egiten. Honen harira, gasolindegia kokagune berria, hain zuten ere Iruñea-Donostia autobidetik Leitzara doan errepidean izanen da, oraintsu Herrilan Sailak eraiki berri duen Olaberriko biribilunea eta Iñurrista industrialdeko zubizko sarrera baino metro eskas batzuk lehenago, Azpikoerrotako Harizti modura ezagun den parajea.

Tramitazio luzea

Gasolindegia herrigunetik ateratzeko egitasmo hau sortu zela badira urte mardoska, hain justu autobidea eta herria elkartzen dituen errepidearen zabaltze eta zuzenketako moldaketa-lanak egiterako sortutakoa da, bai enpresa eta bai orduko Udalaren artean. Orduz geroztik tramitazio-lanak luze jo dute, administrazioaren aldetik hainbat eta hainbat baimen eskuratzea eskatzen omen baitzaie horrelako aktibitatei, jarduera bereziak izateagatik. Aurkeztutako proiektuari hainbat zehaztapen eta egokitzapen egin eta jada, baimen guztiak eskuan izanik, lanak hasi dituzte.

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

inkestako emaitzak:

zer iruditzen zaizu Alegiako San Juan kalea oinezkoa bihurtzeko Udalaren proposamena?

▶ BOTOAK: 118
▶ ONDO: %88
▶ GAIZKI: %12

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 13a, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albitur, Aiegia, Alkiza, Alzo, Ametsola, Ansoa, Balerano, Berasteg, Edoain, Herrialde, Ibarra, Inza, Larnai, Leizorua, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zuzkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritza.
Kultura Saila



GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzera

13

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Sendi Ekintzaren San Bartolometako zozketarako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkarte tabernan, Arkaitz Azpin eta Txumitxan.
Ikaztegieta. *Larruazala nola zaindu* hitzaldia. Bihar, 16:30ean, Kiroldegian. Kristina Otermin adituak larruazala zaintzeko gomendioak luzatuko ditu.
Villabona. Erraustegiaren aurkako plataforma sortzeko bilera 20:00etan hasita, Euskaltegian.

ERAKUSKETAK

Altzo. Altzoko erraldoiari buruzko erakusketa: *Altzoko Erraldoia, Altzo ezaguna egin duen gizona* haur eta helduentzat. Bisita gidatuak.
Hernalde. Luis M. Nuñez margolanak Ostatuan izango dira ikusgai hilaren amaiera bitarte.
Tolosa. Charo Berraren koadroak Lanbroa tabernan.

ZINE-KLUBA

Ibarra. Udako zinema: filmak aire librean. Gaur, 21:00etan, *Spiderman* filma, udalekearen aldameneko frontoian. Ostegunean, hilak 15, *Eres mi heroe*, 22:00etan, leku berean. Abuztuaren 12a bitarte astero bi filma eskainiko dituzte Gaztetxeok kideek antolatuta. Egitaraua haien web orrialdean dago: www.ibarrakogaztetxea.net.

ZINEMA

Tolosa. *Harry Potter III*. 19:30ean eta 22:30ean Leidorren. Bihar, ikuslearen eguna, 19:30ean eta 22:30ean.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maialen Otermin (Anoeta).
Gaur 8 urte. Zorionak eta muu handi bat, aita, ama eta Josuren partetik.

Gailurra, gaztetxoentzat

TOLOSA ▶ Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera antolatu du gaztetxoentzat: Neouvielle (3.091 m.) gaina igotzeko aukera izango dute, Frantziako Pirinioetan



Alpino Uzturre elkarteak antolatuta, iazko uztailaren gaztetxoek egin zuten irteerako argazki bat. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

I. ETXEBESTE

Mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak gaztetxoentzat. Joan den urtean arrakasta izan omen zuen ekimenak, eta horregatik egin nahi izan dute bigarrenez. 13 eta 18 urte bitartekoei zuzenduta dago eta Frantziako Pirinioetara joateko aukera izango dute irteerarako izena ematen dutenek.

Datorren asteburuan, hilaren 17an eta 18an egingo dute irteera gaztetxoek. Larunbate-

an 07:30ean irtengo dute Tolosatik, eta lehenik eta behin Gavarnieko paraje ikusgarriak bisitatuko dituzte. Bazkaloste-an Bageresko herritik aterata zeharkaldia egingo dute: «Bi bat ordu ibilian aritu eta gero Lagleroko aterpera iritsiko gara, eta bertan afalduko dugun», diote Alpino Uzturre elkarteak arduradunek. Lo ere leku berean egingo dute egun horretan.

Datorren egunerako antolatu dute elkarteok kideek mendi irteera nagusia. Goizean, gozaldur ondoren, Neouvielle-

rantz joango dira gaztetxoak Chausenqueko pasadizotik barrera, eta gailurra egin ostean Lac D'Oubertera jaitsiko dira. Leku horretan izango dute autobus zain Tolosara itzultzeko.

Izen-ematea zabalik

Mendi irteerara joateko izena eman nahi dutenek aukera dute oraindik horretarako. Parte-hartzaile bakoitzak 36 euro ordaindu beharko dituela adierazi dute antolatzaileek, eta izena ematerako orduan egin beharko da ordainketa. Prezio horretan sartuta dago joan-etorria autobusean, aterpeko afaria eta gosaria, urte guztirako federazioko segurua eta baita elkarteok bazkidetza ere. Izatez, doakoa da Alpino Uzturre el-

kartearen bazkide egitea; irteerara joaten diren gaztetxoak bazkide izango dira handik aurrera, eta urte osoan.

Frantziako Pirinioetara joan eta Neouvielle (3.091 metro) gaina igo nahi izatera Alpino Uzturre elkarteak Tolosako Gudari kaleko 5 behean duen egoitzara joan eta izena eman besterik ez da egin behar. Gainerakoan, 943 65 27 89 telefono zenbakira ere dei daiteke.

Antolatzaileek esandakoa araberan, oso giro ona sortu zen iaz gaztetxoaren artean, eta gazteen mendi zaletasuna bultzatzeko bakarrik ez, haien artean harremanak egiteko edota sendotzeko ere balio du irteerak, hortaz. Aurtengoan ere hala izango delakoan dira Alpino Uzturrekoak. Ea bada.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak...

zoriontzeko, etorri: HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behe - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!

M3NBEAUTY
Estetika, ileapaindegia eta solariuma

OSTEGUN ETA OSTIRALETAN
EGUN OSOAN IREKITA

Oria, 16 • behe • TOLOSA
Tel.: 943 65 58 37

LIVA izpirik gabe beltzeko aukera.
10 minutu nahikoak dira solariumeko 10 sesioen emaitza bera lortzeko. Gorputz osoan kolore natural-naturala. Azal guztientzako baliagarria